



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

ELGETAN ARGITERIA PUBLIKOAN LED SISTEMAKO ARGITERIA EKIPOAK HORNITU ETA INSTALATZEAREN PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA.

1.- Kontratuaren helburua

Kontratuaren helburua da ARGITERIA PUBLIKOAN LED SISTEMAKO ARGITERIA EKIPOAK HORNITU ETA INSTALATZEA, hemen deskribatzen ditugun lekuetan eta ezaugarriekin. Guztira 170 argi-puntutan egin beharko dira aldaketak.

Helburu nagusi gisa argi kutsadura murriztea, argiztapenaren kalitatea hobetzea eta energiaren kontsumoa murriztea. Murrizketa hau, erregulazio sistemak aintzat hartu gabe %55ekoa izan beharko da gutxienez. Instalakuntza egin aurretik, eta behin instalakuntza amaitutakoan, esleipendunak kontsumoaren neurketa egin beharko du, neurketa horien berri Udalari emanez, ziurtagiri baten bitartez.

Argi puntuek erregulazio automatikoa izango dute, orduaren arabera behar den argi kopuruaren arabera moldatuz. Erregulazio hau kontuan izanda, %70eko aurrezpen energetikoa gainditu beharko litzateke. Erregulazio hori egunero egin beharko da, 00:00tik 05:00ra.

KALEA	Puntu kop.	W gaur egun	Helburua erregulazio gabe
Salbador ostea-gudarien bidea	29	3500 W	1568W
Bidegorri Elorrio bide	7	875 W	351,4 W
Frontoi ingurua	7	875 W	351,4 W
Maala parkea	10	1250 W	560 W
Espaloia parkea	4	500 W	156 W
Pagatza industr.	79	19375 W	6914,6 W
Hilerri bidea	13	1625 W	363 W
Artekale	21	2625 W	819 W

2- Argiteriak bete beharreko ezaugarriak

Kolorearen berotasuna: 4000K.

Bete beharreko araudiak S1,S2 eta me5 izango dira, espazio publikoaren erabileraren arabera. Lanak bukatutakoan argi-mailaren auditoria egingo da, eta bertan ezarritakoa betetzen ez bada, plegu administratiboetan zehaztutako zigorra ezarriko da. Auditoria egiteko esleipendunak kanpo enpresa bat kontratatu beharko du, bere kontura, neurketak egin eta bete beharreko ezaugarriak bermatzeko.

KALEA	Araudia	Kolorea
Salbador ostea-gudarien bidea	me5 errepiderako eta s2 espaloietarako	4000 K



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

Bidegorri Elorrio bide	s1	4000 K
Frontoi ingurua	me5 errepiderako eta s2 espaloietarako	4000 K
Pagatza industr.	me5 errepiderako eta s2 espaloietarako	4000 K
Maala parkea	s1	4000 K
Espaloia parkea	s1	4000 K
Hilerri bidea	me5	4000 K
Artekale	me5 errepiderako eta s1 espaloietarako	4000 K

Ezarri nahi den materiala mota honetako edo antzekoa izango da, beharrezko potentzia araudiaren betetzearen arabera ezarri beharko da. Ezarritako legedia eta aurrezki energetikoa bateraezinak badira, legedia betetzea hobetsiko da. Erreferentzia bezala honako modelo hauek dituzten ezaugarriak ezarriko dira, hala iragazgaiztasunari, bandalismoaren kontrakoari, estetikari eta abarri dagozkienean:

- Bolak ordezkatzeko: Philips Townguide BDP102, edo baliokidea.
- Villak ordezkatzeko: Philips Micenas BDP791, edo baliokidea.
- Bialak ordezkatzeko: Philips UniStreet BGP203, edo baliokidea.

Egin beharreko lanen zehaztapena eta prezioa:

KALEA	Retrofit	Villa 27	Villa 39	Bola	Vial tx	Vial h	PREZIOA
Salbador ostea-Gudarien bidea				1	28		8.645,50 €
Bidegorri Elorrio bide				7			2.698,50 €
Frontoi ingurua				7			2.698,50 €
Pagatza industrialdea				3		76	28.820,50 €
Maala parkea	10						3.640,00 €
Espaloia parkea		4					1.517,96 €
Hilerri bidea		12	1				4.951,77 €
Artekale			21				8.355,69 €
GUZTIRA	10	16	22	18	28	76	61.328,42 €

Taulan ageri diren prezioek, kontzeptu guztiak hartzen dituzte kontuan: hornidura, garraioa, muntaia, ekipo zaharrak kendu eta dagokien tratamendua ematea, auditoria egitea... Prezio hauek BEZa aplikatu gabe ageri dira. Beraz, kontratuaren gehienezko kopurua **61.328,42 €** koa izango da, BEZa kanpo.

3.- Emateko epea

Hornitu eta instalatzeko gehienezko epea 3 hilabetekoa izango da, kontratua sinatzen den unetik.



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

4.- Bermea

Hornitutako elementu guztiek gutxienez 10 urteko bermea izango dute eta baloratuko dira gutxieneko hau hobetzeko egindako proposamenak. Eskainitako bermearen barruan, mantenimendua esleipendunak egin beharko du, kostua bere gain hartuz.

Lanak hasi aurretik, esleipendunak kontratuaren esleipen zenbatekoaren % 5eko bermea jarri beharko du, plegu administratiboetako 9. Puntuan ezartzen den eran.

5- Hobekuntzak

Hobekuntza gisa kontsideratuko dira:

- Proiektu teknikoak jasotzea azterketa luminoteknikoa. Proposatutako materialaren gama edo kalitatea.
- Beharrezkoa ikusten den beste guneren bat argizatzea.
- Lizitatzailerik proposatzen dituztenak.